

EAEko gazteen %37k joan-etorriak garraio publiko kolektiboan egiten dituzte egunero edo ia egunero


Ehuneko horrek gora egin du azken lau urteotan; egunero autoz mugitzen direnenak, ostera, behera.

[Europako Mugikortasun Astea](#) dela-eta (irailaren 16tik 22ra), [Gazteen Euskal Behatokia](#) hainbat datu eskaintzen ari da mugikortasun iraunkorrari buruz, kasu honetan, garraio publiko kolektiboa egunero edo ia egunero erabiltzen duten gazteei buruzkoak.

2012ko martxoan EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen lagin adierazgarri bati egindako inkesta baten emaitzen arabera, gure erkidegoko gazteen %37k joan-etorriak garraio publikoan egiten dituzte egunero edo ia egunero.

Garraio publiko kolektiboa egunero erabiltzen dutenen ehunekoak gora egin du 2008tik, garai hartan ehuneko hori %33 zen eta.

Autoa egunero darabilten gazteen ehunekoak, ordea, behera egin du, %32tik %27ra. Hartara, garraio publiko kolektiboa egunero erabiltzen dutenen ehunekoa eta autoa egunero erabiltzen dutenen ehunekoa alderatuta, zera ikus daiteke: 2008an bi ehunekoak nahiko antzekoak zirela eta 2012an, ostera, gehiago direla egunero garraio publiko kolektiboan mugitzen direnak (%37), joan-etorriak autoz egiten dituztenak baino (%27).




Arreta garraio publiko kolektiboan jarrita, neskek mutilek baino hein handiagoan erabiltzen dutela antzeman daiteke: nesken %42k garraio publikoa egunero edo ia egunero darabilte; gizonen artean, %33k.

Garraio publiko kolektiboaren eguneroko erabilera ohikoagoa da 25 urtetik beherakoengan (%42-%43), 25 eta 29 urte bitartekoengan baino (%30).

Norberaren bizitokiaren udalerrriak duen neurriak ez du eraginik gazteek garraio publiko kolektiboa hein handiagoan edo txikiagoan erabiltzean (ehunekoak %36 eta %38 bitartekoak dira).

Baina garraio publiko kolektiboa egunero erabiltzeari dagokionez, badago alde esanguratsurik lurralde historikoaren arabera. Bizkaia da eguneroko erabilerarik hedatuena duena (%44), eta Gipuzkoan ere (%33) gazte gehiagok erabiltzen dute egunero, Araban baino (%22).



Garraiobide jasagarriari buruzko alde nabarmen horiek tentuz ulertu behar dira. Hain zuzen ere, Arabako eta Gipuzkoako gazteek Bizkaikoek baino gehiago erabiltzen dute bizikleta, berriki argitaratutako [artikulu](#) batean adierazi dugun bezala.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

